

## Udalbatza biltzeko deia

Alkatearen aginduz, Udalbatza Osoak egingo duen **ohiko** batzarrera dei egiten dizut.

Eguna: **2019ko urriaren 28a**

Ordua: **arratsaldeko 7:30etan**

Lekua: **Udaletxeko Pleno Aretoa**

### Gai-zerrenda:

1. 2019ko irailaren 30eko, urriaren 16ko eta urriaren 21eko akten onarpena.
2. Alkatearen jakinarazpenak.
3. 2019ko uztailaren 22ko Udalbatzaren erabakia zuzentzea, Zabalotegi 9ko eraikinean igogailua jarri ahal izateko 4,86 m<sup>2</sup>-ko azalera duen lurzattia Zabalotegi 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 12ko Jabekideen Komunitateari eskualdatzeko.
4. Bergarako Udala Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari, atxikimendua.
5. Udal aurrekontuan kreditu aldaketak onartuz (2019-KALD-000010-00, 000011-00 eta 000012-00) emandako dekretuen berri ematea.
6. Berankortasunari eta Ordaintzeko batez besteko epeari (OBBE) buruzko informazioa. 2019-3 epea (Udal administrazioen Fakturen erregistroa eta berankortasuna).
7. Udal aurrekontuaren 2019-KALD-000013-00 kreditu aldaketa (kreditu gehigarriak) onartzea.
8. Mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldiko jarraipenaren kudeaketa mandatua onartzea eta bi aldeen betebeharrak zehazten dituen hitzarmena onartzea.
9. La Caixa fundazioarekin Boni Laskurain 8ko Bergarako adinekoen zentroan programa bat garatzeko hitzarmenaren onarpena.
10. Auzitegi Konstituzionalaren aurrean babes-errekurtsoa jartzea erabakiz 2019ko urriaren 7an hartutako erabakia baieztatzeko proposamena.
11. Gipuzkoako Lurralde Agintaritza Partzuergoarekin sinatuko litzatekeen hitzarmenaren onarpena.
12. Auzitegi Gorenak Catalunyako procesari buruz emandako epaia dela eta, EH Bildu udal taldearen adierazpen proposamenaren onarpena, hala badagokio.
13. Eskaera eta galderak.

Begara, 2019ko urriaren 24a

Idazkariak

